

## Gogotik aurrera atera nai duten baserriarrentzat

Gure erriari begiratzeko badiogu, garbi ikusiko degu baserriak eta kaleko enpresak ez daudela parean. Badirudi, geldirik dagoela azken urte auetan gure baserria; kaleko lantoki edo enpresak, bestalde, abiatu aundi baten joan dira igo ta igo.

Zergatik artu dio orrenbesteko aurrea kaleko industriak baserriari? Zer egin bear dugu, baserria kaleko enpresen alifean ipini nai badeugu? Zergatik ari dira alibat eta alibat baserri kalera jexki ta jexki? Zer da baserriari gertatzen zaiona? Zer egin genezake egi-egitan baserriari lagundu nai badiogu?

Badirudi kaleko lantokiak eta baserriak berdiñak dirala begiratu batera. Bietan egiten da lan, bietan ateratzen dira salgaiak, bietan dago saldu bearra al dan irabazi geienarekin.

Bigarren begiratu batera, ordea, bereala nabarmenduko ditugu izugarriko aldeak. Zertan?

Baserrian, gutxi-gorabera joka tzen da geienatan: ez da kontabilitaderek ematen (zenbat diru sartzen eta ateratzen dan ikusiaz), ez dira lan-orduan bear bezela kontatzen,

Kaleko lantoki oietan egiten diran azterketa oien antzekoak egiten ez baditugu baserrian, gure itzegite guziak alperrikakoak izango dirala uste dugu. Eta asper-asper egiña dago baserriarra itzeko laguntza ustel auekin. Baserriari egi-egitan lagundu bear zaio eta ez al botik emango kontseju xamurrekin, baserria aurrerabidean ipintzeko lagundu bear zaio.

Ortarako, lenengo egitekoa, kaleko lantokietan egiten dituzten azterketa oiek baserrietan egin bear dira. Bañan, norik egingo ditu azterketa oiek? Baserriarren artean, gutxi ditugu, zorigaitze, ekonomia, lur-azterketa, azoka-indarrak zer-nola izaten diran ikasi dituztenak. Orregatik zaio ezifizekoa baserriarri egi-teko au betetzea.

Auek orrela, baserriko goraberran ikasiak diran batzuk prest daude azterketa auek egiteko. Bai! Oraingoan itzak eta esaera errezak aide batera utziaz, egi-egitan ekin nai diote baserriari laguntzen. Talde bat izango da zure baserria ososorik aztertu eta zure lana zertan dan etekingarri eta zertan kaltega-

tziguzu zure baserriaren izena t'abar emanaz, artuemanen jarri gaitzen lenbailen; orrialde onen azpiko txartel ontan eskatzen diran zeaztasunak aski dira guri bialtzea eta bereala izango dezu talde onen eskutitzen bat, xeetasun geiagokin.

Itzegite utsaren aurka ari geran ezker, etzitugu asperu nai idazlan luzerik eskelniaz. Naialgo dugu, artuemanen jartzea lenbailen. Ja-

kin bear duzu, obe duzula azkar idatzi eskatzen zaizkitzun zeaztasunak adieriaz. Izan ere, lan au egiteak denbora asko eskatzen du oso azkar ibillita ere, eta aurrenlan baserri gutxiak asi beariko; aurrena etortzen diranekin.

Gaurkoan besterik gabe agurtzen zaizugu. Zu ere aurrera zalea balazaitugu, bereala izango gerala uste dugu artuemanetan berriro.

Etxeko nagusiaren izen-abizenak.....	.....
Baserriaren izena .....	.....
Auzoa .....	.....
Erria .....	Probitzia .....
au bete eta "GOIZ-ARGI"-ra bidali zazu	

Euskera, hire laguna! -2

Asko poztu naiz Altuna Patxiaren "Euskera, hire laguna! 2" ikuslearekin. Bigarren mailako euskal ikasbidea da.

Egile honen beste liburak bezala, honek ere on asko egingo dualakoan nago.

Euskal arloan ditugun euskal euskalbiderik onena dan ala ez, ez dakit. Konparazioak beti dira gorrotagarri. Eta gainera, dauzkagun ikasbideok beren artean erabat desberdinak diralarik, nola asi gindezke konparaketak egiten? Bakoitzak du bere bidea.


"Euskera, hire laguna!"-ren bidea ez da estraina berria. Inglesez egina da aurrenik. Egileak berak dienez, "Present Day English

for foreign students" liburuarekin zorretan dago. Alde hontatik goiko maila bat ba du liburua.

Bestalde, idazkeraren aldetik "gaurkotua" eskeini digu Altunak bere liburua. Gauzak egin behar diran bezala eginaz. Nahiz-eta, behar bada garai baten, iritzi desberdinekoa izan egi-lea bera, Euskaltzaindiari amor eman dio. Arantzazuko erabakiz ornitua dator-kigu liburua. Zorionak, Patxi.

Zorionak zure lanagatik, eta zorionak bidea erakusten diguzalako: "inon jotzekotan, euskeraz ikasteko den liburua... jo behar zela batasunerari neritzan". Hori da arrazoia.

joan mari torreaday.



lurrak eta abar ez dira ondo analizatzen, zerkin atera dutekan diru geiena, nun eta nola saldu bear diran eta abar eta abar.

Ondo dijoazten kaleko industrietan, ordea, guzi auek xentimorik xentimora aztertzen dira. Ondo ikasten dira guzi auek eta ala ta guztiz izaten dituzte naiko buruauste. Ondo ikasi bear izaten dituzte ze azoka dituzten inguruan, ia inguruko errietako lantokietan zenbaten sortzen duten salgai edo produkto bera, ia merkena nola atera dezateken produkto ori, eta abar.

rrri, zer lurretan zerik emango lukeken geiena; nun salduaz eta ze erataria izango zenuken irabazirik erosena; zure etxe eta ikulluak, siloak eta txarritokiak nun eta nola egin bear dituzun erabakitzen lagunduko dizuna.

Talde au ez dijoakizu zure izardiaren irabazia artzera, itz ederen truke. Ez dizute dirurik eskatzen.

Bañan zu ez bazaude prest, guk ezin dizugu laguntzarik eskeini. Zuk nai izatekotan bai ordea. Orregatik genion asieran, gogotik aurrera egin nai duten baserriarrentzat ari gifiñala. Zu oetako bazaitugu, ida-

### TEKNIKA-LANGINTZA

- Eletrizapen-naiak.
- Eletri-aundietako eta txikitetako lan guztiak.
- Bereko piztu-itzaliak.
- Elektrika lan-tokiak.

Urrutizkiñfa: 27429  
Gaztelu, 1.  
Marruchipi.

Apart. 752  
DONOSTIA

electricidad gaztelu.s.c.i.